

Elkartasuna txerto



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
ZINEGOTZIA

izan zen, behin, euskararen mesederako izan nahi omen zuen kanpaina bat, protagonista birus baten panpina zuena. Bada, hamabost urte geroago, benetako birus batek hankaz gora jarri du gure bizimodua, tartean ere euskaraz bizitzeko egiten dugun ahalegina.

Euskararen erabileran zeresana dutenek edota euskara erabiltzea hautazkoa ez dutenek erabaki dute une hone tan ere ez dela euskara erabiltzeko une egokia, eta are gutxiago lehenestekoa. Osasungintza publikoa baldintza eskasekin mantentzen duten agintari neoliberalak, pandemia foamezko bolazoka estali asmo duten ertzain horiek edota txertoen VIP banaketak antolatu dituzten handiki horiek, COVID-19arekin egin bezala, euskararen normalizazioa ere euskaldunon bizkar, eta soilik gure bizkar, utzi dute.

Garai berean, Txeroki herriak erabaki du Txeroki hitzun bakanak lehenestea COVID-19aren aurka txertatzean, beren kulturak iraun dezan. Gurean, ordea, Sars-Cov-2 horren aldaera endogenoak bailiran, biderkatu egin zaizkigu euskaraz bizi garenon aurkako erasoak. Horrela, hilabeteetan zehar, Jaurlaritzak nagusiki gaztelaniaz hedatu ditu pandemiaren ingurukoak; puztu egin da Euskal Telebistaren gaztelaniazko eskaintza, eta zornatzen jarraitu du

euskarazkoak; kolore guztietako poli ziak euskaraz aritzearen aurka txertatuta agertu dira, adurra zeriela inoiz, gehiegi hartuta bezala; Osakidetzako batzuei birus linguistikoak lotsagabekeri araino eboluzionatu die, euskaraz artatuak izan nahi dutela zehaztuta duten zenbaiti esan baitiete pandemiak ez zuela ahalbidetzen euskaraz artatzea.

Horrek guztiak hazkuntza likido baten antzera jokatu du, eta Donostiako Udal Gobernua ere kutsatu du. Horrela, egolatria bandera gora eta behera astinduz lantzen duen gure alkateak erabaki du, pandemiaren bigarren olatuaren erdian, diru sailak murriztea euskarazko hedabideei, euskara sustatzeko ekimenei, baita euskara ikasteko laguntzei ere. Ez du galdu, ordea, Euskaraldiaren buru agertzeko aukera, berak onartutako arau aldaketa bati esker, euskaraz ez dakiten zuzendari berriek beren lan taldeei euskaraz lan egitea zailtzen jarraitu duten bitartean, edota autobus publikoetako geltokietan publizitatea batez ere gaztelaniaz jartzen jarraitu badu ere.

Euskararen erabilera ahultzen duen gaitza detektatua dugu, gutxitutako kulturak are gehiago gutxiagotzen dituen egoismo kapitalista da, eta horren aurka behar duguna ahaldunduko gaituen elkartasunezko txertoa da. ●

Galtzearen arteaz



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

dazteak era guztietako enkarguak jasotzea ekarri dit: senitartekoendako eskelak, lagunendako hiletetarako poemak, haur jaio berriendako opari-testuak, politikoendako hitzartzeak, Hiru Erregeendako diskurtsoak... Paperak ordenatzen ari naizela lagun bati egindako testuen karpeta aurkitu dut: erakunde nazional bateko lehendakari tarako aurkeztu behar zen, eta horren zaila zen egoera, ez zekien aterako zen ere. Bi testu prestatu nizkion: bata ateratzen baldin bazen irakurtzeko, eta bestea bozketa galtzen baldin bazuen

edukitzeko, zer gerta ere. Kargua hartu zuen bai, baina ez zuen asko iraun liskarzaleen artean. Bere agurraren berri irratian ematen ari zirenean, Gasteizko kale batean nengoen, autoan sartuta, negarrez, neronek idatzi bai, baina nire egiten ez nituen hitzak entzuten. Ez genuen inoiz hitz egin testu hartaz. Ezin nuen ulertu erretiratzea ezer txarrik esan eta, areago, sentitu gabe. Baina 45 urte kostatu zait Elizabeth Bishopen hitzok nire egitea: “Bistan da: galtzearen artea ez da zaila ikasten/hondamendiaren traza izan dezakeen arren.” ●